

DUNEN ARTEAN

Idoia Zabalo Ríos

Beasain

Lapurtuak ziren
izpien itzaleko basamortu ezezagunean
izan zen jaioa.
Lehen urratsak
lurraren sustraiak suntsitu zituen ekaitzaren
erdian eman zituen.
Zerumugan ikusten zen
zurrunbiloaren begia
berarengana bultzatua zen bitartean,
begiak itxi,
eta argi-inar horien artean
handitzen den zulo beltzaren
sakonera nahiturik zeuden.
Tximisten sugarrek hotz utzi zuten.
Munduak hotz utzi zuen,
ilargia desiratzen duen eguzkitik
berotasuna itxaroten zuelarik.

Hutsetik sortua zen haizeak
eman zion bultzakada,
hodeietatik urrutirago,
zer dagoen ikusteko
jakingura.

Mugaezina zirudien unibertsoan
hare-alea izanik,
itsasoko olatuek
xurgatzen zutela sentituz,
amaigabea zirudien bidean zehar
desjabetu zituzten beraren arima-zatiak
bildu zituen.

Itzaletan hazten zen bitartean,
malkoak, gainezka egin arte, bildu zituzten
begiak,
zeru iluneko izar bilakatu ziren.

Eta azkenean,
sakonerantz bultzatzen zuten kateak
puskatu zituen.
Geldirik mantendu zutena,
geldiezina zen orain.

Orain,
basamortuko itzalen tartetik islatzen diren
lehen izpiekin batera,
galopan,
bere zurdaren artetik haizea
sortzen duen zaldi basatia
bilakatu da.
Dunen sorbatzak astintzen dituen
arima.